



Gurasuk ez nabe matxe

Hamasei urte akat eta institutun na estuixaten. Danak aproba txuaz aurten, bañe eztozte erosi ez motorrik ez telefono mobilik. Esatezte ia nahi doten oporreta nonoa jun, eta gañea nahi nabe engaña Ingalterra juteko inglesa ikastea, bañe nik naixa rot motorra eta telefono mobilie, ze lagun guztik dakarre eta txakur berdin konpleju hartzen hasi na ya.

Eztabe ulertzen motorra eta telefono mobilie ez tize-la moda bat ero kapritxo bat, bixitzeko behar-beharrezkuk baño. Gure amaaxik balitxake ondiokan kuebetan eongo giñake. Pentsa ze esaten dabela telebisinorik ezauanin be pozik bixi zile.

Zelaik esplika gurasoai gaur egun motorra eta telefono mobilik baik kalatxoixan kaka baño gitxiu zazela. Imajina parte zaharrin gazela eta “Movidikea guazen” (Moby Dick) esaten dabela batek. Ba han jungo riz danak motorrin, eta ni oñez, hamar bat minutu oñez, bakarrik, erozeñek ikusteko be... Klaro, neski banitx, launen batek erungo nitxuke atzin, bañe ni erun baño naixa rabe bakarrik jun novayaserke bidin neskan bat ikusi eta Movidikea nai daben jun. Eta kantza etxen na.

Ezta bakarrik trasportari. Beste gauza batzutako be balixo rau. Esate bateako, aspertute baza, beti emon zeinke hamalau buelta Kalatrabako zubitxik zubi barriere, kamiñaldetik, kalanditxik elixatodaostia eta olan-txen herrixe ezautu. Gañea, neskin bille bazuz, ze motorra baakazu neski akazu, entradako tinbri jo biarrik ezta kazuz; hiru-lau azeleroi eman da listo, entera ra.

Hor ezti amaitzen bentajak. Kotxin aldin ona ra motorra, ze kotxiaz ezin za sartu oñezkun lekutan, tontodromun, alamedan, plaiko morrun, eta motorraz bai. Asteburutan, alde zaharra itxitxen dabenin, kotxeik ezin leike pasa, bañe motorrak bai, ze oñezko batek beste okupaten dau, eta oñezku bixkat al loro baabil ezta peligrorik, kenduko ra bidetik. Gañea, eronun aparka zeinke, ze udaletxik barandilla azul batzuk ipiñi rau kotxik ez eta motorrak aparkatzeko, zamarrak lagateko tokixak be baakazu...

Eta gañea ezti konturaten motorra baneuke ariña ayako nitxakela etxea afaltzea, eta bixkat berandu banebil mobilietik deitxuko netzake trankil egoteko esaten. Dana bentajak.

Ez esan telefonu derrigorra ez tanik. Aparte jun baik, atzo bertan, plaire jun giñan arratzaldin eta mari goixan euanez jentez beteta euan. Mikel berandu etorri zan eta ezekixenez nun geuazen, mobilie hartu eta gurutze gorriko puestun aurretik Gorkan mobiliea deitu ban. Gorka geugaz euan, eta Mikelek galdetu tzan ia nun geuazen esatamante, eta Gorka altza zan eta eskuaz eitzan. Mikel zuzenin etorri zan. Ni eon banitxan Mikelen kasun, telefonoik ezta katenez, tontun moure ibiliko nitxan bueltaka plaixan launan bille.

Zein kristoaz berba eingot nik hamendik aurrera inguruko guztik telefonotik berbetan barabiz?

Benetan, ez nabe matxe.

Gurasoek ez nabe maite

Hamasei urte daukadaz eta institutuan nago estudianten. Danak aprobau ditudaz aurten, baine ez deuste erosi ez motorrik ez telefono mobilik. Esaten deuste ea nahi doten oporretara nonora jua, eta gainera nahi nabe engainau Ingalterrara juateko inglesa ikastera; baine nik nahiago dot motorra eta telefono mobile, ze lagun guztiek dakarre eta txakur berdearen konplejua hartzen hasi naz ja.

Ez dabe ulertzen motorra eta telefono mobile ez direzela moda bat edo kapritxo bat, bixitzeko behar-beharrezkoak baino. Gure amagatik balitz ondiokan kuebetan eongo ginake. Pentsa, ze esaten dabe telebisinorik ez egoanian be pozik bizi zirela.

Zelan esplikau gurasoai gaur egun motorra eta telefono mobilik barik kalatxoriaren kaka baino gitxiago zarella. Imajinau parte zaharrian gagozela eta “Movidikea goazen” esaten dauela batek. Ba, han juango direz danak motorrian, eta ni oinez, hamar bat minutu oinez, bakarrik, edozeinek ikusteko be... Klaro, neskia banintz, lagunen batek eruango ninduke atzian, baine ni eruan baino nahiago dabe bakarrik jua “novayaserke” bidian nesKaren bat ikusi eta Movidikea¹ nahi dauen jua. Eta kantzau egiten naz.

Ez da bakarrik transportia. Beste gauza batzutako be balio dau. Esate baterako, aspertuta bazagoz, beti emon zeinke hamalau buelta Kalatrabako zubitxik zubi barrira, kaminaldetik, kalanditik “elixatodaostia” eta holan herrie ezagutu. Gainera, neska bile bazuaz, ze motorra badaukazu neskia daukazu, entradako tinbria jo beharrik ez daukazu; hiru-lau azeleroi eman eta listo, enterau da.

Hor ez dire amaitzen bentajak. Kotxian aldin ona da motorra, ze kotxiaz ezin zara sartu oinezkoen lekuetan, tontodromun, alamedan, plaiko morrun..., eta motorraz bai. Asteburuetan, alde zaharra itxitxen dabeanin, kotxerik ezin leike pasau, baine motorrak bai, ze oinezko batek beste okupaten dau, eta oinezkua pixka bat “al loro” badabil ez da peligrorik, kenduko da bidetik. Gainera, edonun aparka zeinke, ze udalak barandilla azul batzuk ipini dauz: kotxiak ez, eta motorrak aparkatzeko; zamarrak lagateko tokiak be badaukazuz...

Eta, gainera, ez dire konturatuten motorra baneuka arinago ailegako nintzakela etxera afaltzea, eta pixka bat berandu banenbil mobiletik deituko neuskie trankil egoteko esaten. Dana bentajak.

Ez esan telefonua derrigorra ez danik. Aparte jua barik, atzo bertan, plaira jua ginan arratsaldin eta maria goian egoanez jentez beteta egoan. Mikel berandu etorri zan eta ez ekianez nun gengoan, mobile hartu eta gurutze gorriko puestuaren aurretik Gorkaren mobilera deitu eban. Gorka geugaz egoan, eta Mikelek galdetu eutsan ea nun gengoan exaktamante, eta Gorka altzau zan eta eskuaz egin eutsan. Mikel zuzenian etorri zan. Ni egon banintz Mikelen kasuan, telefonorik ez daukadanez, tontuaren modura ibiliko nintzan bueltaka plaian lagunen bile.

Zein kristogaz berba egingo dot nik hamendik aurrera inguruko guztiak telefonotik berbetan badabilz?

Benetan, ez nabe maite.

¹ Moby Dick dantzalekua